

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2012ko URTARRILA

% 4 bidaiari gehiago etorri da Euskal AEra 2012ko urtarrilean

Ostatu-gau kopuruak ere % 4 egin du gora

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Eustaten datuen arabera, 2012ko urtarrilean 122.321 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 4.524 gehiagok; horrenbestez, % 4ko gehikuntza izan da. Araban % 3 igo da etorritako bidaiari kopurua, Bizkaian % 6 eta Gipuzkoan % 1.

Estatutik etorritako bidaiari kopuruak % 4 egin du gora, atzeritik etorritakoen kopuruak bezala. Estatuko bidaiari gehiago izan da hiru lurraldeotan: Araban % 3 gehiago, Bizkaian % 6 eta Gipuzkoan % 1. Hiru lurraldeetan gehitu da atzeritik etorritako bidaiarien kopurua ere: Araban eta Gipuzkoan % 2 igo da, eta Bizkaian % 5.

Beste Autonomia Erkidegoetako bidaiarien artean, etorritako bidaiarien ehunekoei dagokienez, gehien hazi dira Andaluziatik, Aragoitik, Asturiasetik eta Nafarroatik etorritakoenak. Baina gutxitu egin da, batez ere, Katalunia, Kantabria eta Valentziako Erkidegotik etorritakoen kopurua. Atzeritarren artean Erresuma Batutik, Iberoamerikatik eta Erkidegotik kanpoko Europatik etorritakoen kopurua gehitu da gehien. Jaitsiera izan dutenen artean, Portugaldik eta Belgikatik etorritakoen beherakada da nabarmenena, ehunekoak kontuan hartuta.

2012ko urtarrilean 217.939 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko urtarrilarekin alderatuta ostatu-gaua igaro dutenen kopurua % 4 gehitu da, guztira 7.525 ostatu-gau gehiago. Igarotako ostatu-gau kopuruak urte arteko bilakaera positiboa izan du Araban (% 3ko igoera) eta Bizkaian (% 8ko igoera); baina Gipuzkoan kopurua % 2 jaitsi da.

Batez besteko egonaldiaren iraupenak zertxobait behera egin du Euskal AE osoan eta 2011ko urtarrilaren aldean: 1,79 eguneko egonaldia izan zen ordukoan eta urte honetakoan 1,78 egunekoa izan da. Lurraldeka, Araban 1,97 egunetik 1,95 egunera jaitsi da egonaldia; Bizkaian 1,73 egunetik 1,76 egunera igo da, eta Gipuzkoan behera egin du: 2011ko urtarrilean 1,79 egunekoa izan zen eta 2012ko urtarrilean 1,73 egunekoa izan da.

Euskal AE osorako, plazen okupazio mailak gora egin du (% 5), 2012ko urtarrilean % 29,56koa izan baita. Bizkaian okupazio mailak % 8 egin du gora: 2011ko urtarrilean % 28,22koa izan zen eta urte honetako urtarrilean % 30,49koa izan da. Gipuzkoan % 4 egin du gora, 2011ko urtarrilean % 28,56koa izan zen eta 2012koan % 29,74koa izan da. Araban aldiz % 1 behera egin du, 2011ko urtarrileko % 27,02tik aurtengo urtarrileko % 26,71era.

NEKAZARITZA-TURISMOA

Etorritako bidaiarien kopurua % 1 jaitsi da eta igarotako ostatu-gau kopuruak % 12 egin du behera, 2011ko urtarrilarekin alderatuta

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetako bidaiari-sarrerak: Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan 4.032 bidaiari erregistratu dira azken urtarrilean; beraz, nekazaritza-turismoko establezimenduetan 2011ko urtarrilean erregistratu zirenekin alderatuta, %1 gutxiago etorri dira. Lurraldeka, Araban hazkundera gertatu da (% 21), Bizkaian % 29 egin du behera eta Gipuzkoan % 10 igo da. Estatutik etorritako bidaiari kopurua % 2 igo da Euskal AEn: Araban % 18 igo da kopurua, eta Gipuzkoan % 12; Bizkaian % 23 jaitsi da. Erkidego osora etorritako atzerritarren beherakada nabaria izan da, ehunekoak aintzat hartuta, Araban kopuruak gora egin duen arren. Beherakada nabarmena izan da Bizkaian, eta Gipuzkoan ere kopuruak behera egin du, gertatutako jaitsiera hain handia izan ez bada ere.

Urtarrilean, guztira, 10.076 ostatu-gau igaro dituzte bidaiariek Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan. Beraz, aurreko urteko hil beraren aldean % 12 jaitsi da ostatu-gau kopurua. Urte arteko hazkunde tasak positiboak izan dira Gipuzkoan, % 1eko hazkundearekin; Araban, ordea, % 4 jaitsi dira, eta Bizkaian % 36 egin dute behera.

Bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2011ko urtarrileko batez bestekoaren aldean: aurreko urtean 2,65 egunekoa izan zen, eta urte honetako urtarrilean 2,34 egunekoa izan da. Araban % 21 jaitsi da batez besteko egonaldia, 2011ko urtarrileko 2,75 egunekotik 2012ko urtarrileko 2,18 egunekora. Bizkaian jaitsiera % 9koa izan da, 2011ko urtarrileko 2,79 egunekotik 2012ko urtarrileko 2,53 egunekora. Gipuzkoan % 8 jaitsi da batez besteko egonaldia: 2011ko urtarrilean 2,53 egunekoa izan zen eta aurtengo urtarrilean 2,32 egunekoa izan da.

Plazen okupazio mailak % 17 egin du behera, % 10,28tik % 8,55era igaro baita. Okupazioa hiru lurraldeotan jaitsi da: Bizkaian % 35 egin du behera, eta Araban % 9; Gipuzkoan % 8 jaitsi da.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazalturismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	01 2012	(%)	01 2011	(%)	Δ %	01 2012	(%)	01 2011	(%)	Δ %	01 2012	(%)	01 2011	(%)	Δ %	01 2012	(%)	01 2011	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	217.939	100	210.414	100	4	36.652	100	35.746	100	3	113.255	100	105.128	100	8	68.032	100	69.540	100	-2
Estatukoak	159.674	73	153.521	73	4	29.432	80	27.786	78	6	82.608	73	77.061	73	7	47.634	70	48.674	70	-2
Atzerrikoak	58.265	27	56.893	27	2	7.220	20	7.960	22	-9	30.647	27	28.067	27	9	20.398	30	20.866	30	-2
Hiriburua	144.053	66	136.582	65	5	30.198	82	28.687	80	5	75.226	66	68.548	65	10	38.629	57	39.347	57	-2
Litoral	16.134	7	16.336	8	-1	-	-	-	-	-	5.280	5	6.143	6	-14	10.854	16	10.193	15	6
Barnealdea	57.752	26	57.496	27	0	6.454	18	7.059	20	-9	32.749	29	30.437	29	8	18.549	27	20.000	29	-7
BIDAARIEN SARRERAK	122.321	100	117.797	100	4	18.751	100	18.167	100	3	64.223	100	60.860	100	6	39.347	100	38.770	100	1
Estatukoak	92.765	76	89.327	76	4	15.296	82	14.794	81	3	49.667	77	47.030	77	6	27.802	71	27.503	71	1
Atzerrikoak	29.556	24	28.470	24	4	3.455	18	3.373	19	2	14.556	23	13.830	23	5	11.545	29	11.267	29	2
Hiriburua	78.576	64	74.262	63	6	14.512	77	13.475	74	8	41.439	65	38.804	64	7	22.625	58	21.983	57	3
Litoral	10.436	9	9.887	8	6	-	-	-	-	-	3.235	5	3.478	6	-7	7.201	18	6.409	17	12
Barnealdea	33.309	27	33.648	29	-1	4.239	23	4.692	26	-10	19.549	30	18.578	31	5	9.521	24	10.378	27	-8
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,78		1,79		-1	1,95		1,97		-1	1,76		1,73		2	1,73		1,79		-3
BETETZE-MAILA PLAZAKA	29,56		28,12		5	26,71		27,02		-1	30,49		28,22		8	29,74		28,56		4
Hiriburua	34,31		31,37		9	31,70		30,33		5	35,72		31,63		13	33,91		31,72		7
Litoral	24,88		25,57		-3	-		-		-	18,55		21,66		-14	29,82		28,69		4
Barnealdea	22,85		23,09		-1	15,38		18,73		-18	24,74		23,90		4	23,66		23,83		-1
BETETZE-MAILA GELAKA	36,77		35,86		3	33,26		34,92		-5	38,15		36,98		3	36,73		34,66		6
Hiriburua	42,02		40,17		5	39,37		39,28		0	44,02		42,17		4	40,78		37,41		9
Litoral	30,23		32,24		-6	-		-		-	23,42		27,89		-16	35,27		35,58		-1
Barnealdea	30,01		29,07		3	18,63		22,83		-18	32,37		30,09		8	31,81		30,14		6
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	10.076	100	11.484	100	-12	1.883	100	1.961	100	-4	2.518	100	3.914	100	-36	5.675	100	5.609	100	1
Estatukoak	8.695	86	9.793	85	-11	1.688	90	1.709	87	-1	2.196	87	3.326	85	-34	4.811	85	4.758	85	1
Atzerrikoak	1.381	14	1.691	15	-18	195	10	252	13	-23	322	13	588	15	-45	864	15	851	15	2
BIDAARIEN SARRERAK	4.302	100	4.330	100	-1	863	100	714	100	21	997	100	1.402	100	-29	2.442	100	2.214	100	10
Estatukoak	3.974	92	3.904	90	2	774	90	656	92	18	948	95	1.234	88	-23	2.252	92	2.014	91	12
Atzerrikoak	328	8	426	10	-23	89	10	58	8	53	49	5	168	12	-71	190	8	200	9	-5
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,34		2,65		-12	2,18		2,75		-21	2,53		2,79		-9	2,32		2,53		-8
BETETZE-MAILA PLAZAKA	8,55		10,28		-17	7,01		7,71		-9	7,09		10,86		-35	10,23		11,16		-8
BETETZE-MAILA GELAKA	10,34		11,86		-13	7,57		8,48		-11	9,24		13,00		-29	12,41		12,77		-3

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Argibide gehiago:
[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01.

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua